

***OINARRIZKO HIZTEGI
JURIDIKO- PARLAMENTARIOA***

***DICCIONARIO JURÍDICO -
PARLAMENTARIO BÁSICO***

**EUSKARA DUGU ONDARE
EL EUSKERA NUESTRO BIEN PATRIMONIAL**



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA



Arabako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

 **gipuzkoa**
BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

EUSKARA DUGU ONDARE

EL EUSKERA NUESTRO BIEN PATRIMONIAL

Guk ordezkaten ditugun erakundeok euskara dugu ondare eta elkarrekin dugun ondasun honek unean uneko mugak eta denboraz denborako inguruabarrak gainditzen ditu. Hori dela eta, erakundeok bat egin nahi dugu nork bere eremuko herritarrei ezinbestekoa den zerbitzu bat emateko, alegia, euskararen normalizazioan eta estandarizazioan aurrerabidea dakarren urratsa egitea, gure gizartearentzat onuragarria izango baita.

Izan ere, *Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentario* hau, gure erakundeetako legebiltzarkide, parlamentari eta batzarkide eta profesionalentzat ez ezik, baliabide mesedegarria izango da gure profesionalentzat, eta, horren ondorioz, gure herritarrentzat ere bai.

Hogeita hamabost urte baino gehiagoko bidea egin dute gure erakunde legegileek hizkera juridiko- parlamentarioa sortzen, lantzen eta doitzen. Urte horietan guztietan zehar euskararen hizkera egiten aritu ondoren, orain estandarizazio eta normalizazioaren aldeko lana egitea egokitu zaigu erakundeek.

Helburu hori aurrean, gure erakundeek egindako lanak bateratzen jardun dugu, gure erakundeek gaztelaniaz berdin darabiltzaten terminoak euskaraz ere bai berdin erabili ahal izateko. Langintza honetan ez gara aritu nork bere erabilera besteei ezartzen; aldiz, generabilena finkatu dugu; horrekin batera, gerora begira guztiok berdin erabiltzeko moduko hitzak eta esapideak bateratu ditugu, eta gainerakoak bihar-etziko herritarrentzat utzi ditugu, berba eta esamolde horien bateratzea orduko helduta izango delakoan

Beraz, hauxe da gaur eta hemen aurkezten dugun fruitua: gure erakunde guztiek aho batez ontzat hartu dituzten eleen eta esateko moldeen bilduma. Gaurgero, euskal hiztun guztientzat parlamentuetako jardunean erabiltzen den euskara arragotzen joan dadin, bai erabileraren poderioz, bai denboraren poderioz. Izan ere, fruitu honek ez du gure erakundeentzat bakarrik izan nahi, ezpada gizarteak izan behar du haren onuraduna.

Las instituciones a las que representamos tienen el euskera como bien patrimonial, y ese bien por todas compartido desborda límites coyunturales y circunstancias temporales. En consecuencia, nuestras instituciones han querido unirse para ofrecer un servicio indispensable a la ciudadanía de nuestros diversos ámbitos territoriales; para dar un paso más en la normalización y estandarización del euskera que redundará en beneficio de nuestra sociedad.

Ciertamente, es nuestro deseo que este *Diccionario jurídico-parlamentario básico* resulte útil no solo para miembros y servicios de nuestras respectivas cámaras, sino también para profesionales, y en definitiva para toda la ciudadanía.

Nuestras instituciones legislativas llevan una andadura de más de treinta y cinco años en la elaboración, desarrollo y fijación del lenguaje jurídico-parlamentario. Tras ocuparnos a lo largo de todos esos años de la configuración de dicho lenguaje en euskera, corresponde ahora a las instituciones trabajar en pro de su estandarización y normalización.

Con la mirada puesta en dicho objetivo, hemos colaborado en la unificación de las aportaciones realizadas por nuestras instituciones, con el fin de que los términos que ellas utilizan de forma idéntica en castellano, se utilicen también de forma idéntica en euskera. En esta tarea cada institución no ha pretendido imponer su uso a las demás, sino que por el contrario lo hemos validado; al mismo tiempo, hemos unificado las voces y expresiones susceptibles de ser utilizadas de forma idéntica por todas en el futuro, y las restantes las hemos dejado aparcadas para la decisión de las generaciones futuras, en la confianza de que para entonces se habrá llegado a una fase de maduración en la unificación de dichas voces y expresiones.

Por tanto, la obra que presentamos aquí y ahora es una compilación de vocablos y enunciados que cuentan con el visto bueno unánime de nuestras instituciones. Para que, desde ahora, el euskera que se utiliza en la actividad de las diversas cámaras parlamentarias, con el uso y con el paso del tiempo, se consolide para el conjunto de la ciudadanía euskaldun. Y es que, se pretende que esta recopilación no solo sirva para las instituciones, sino para que toda la sociedad se beneficie de ella.

Langintza hau luzea da, etengabea, ez da gaurkoarekin amaitu; betiere, oinarri sendoa izan nahi eta behar du, geroago ere euskaraz sortzen diren terminoek sendotasuna izan dezaten.

Eginkizun honetan erakunde legegileok Euskaltzaindia izan dugu lankide eta gidari, Euskararen Akademiak berea baitu, besteak beste, euskararen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea, eta hiztegia biltzea. Horregatik, gisa honetako lanetarako, Euskaltzaindiaren babesa eta itzala ezinbestekoak izan dira eta izango dira.

Hemen duzue *Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa*, herritarren zerbitzura jarria.

Bilbon, 2017ko otsailaren 24a

Bakartxo Tejeria Otermin,
Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Presidenta del Parlamento Vasco

Pedro Ignacio Elósegui González de Gamarra
Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria
Presidente de las Juntas Generales de Álava

Ana Otadui Biteri,
Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria
Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia

Se trata de una tarea larga, continua y no finaliza con esta obra. Porque este diccionario quiere y debe ser una buena base para la consolidación de nuevos términos jurídicos parlamentarios que en el futuro surjan en lengua vasca.

En este camino recorrido las cámaras legislativas hemos contado con la colaboración y dirección de Euskaltzaindia, Academia que tiene como funciones dar orientaciones y normas para la redacción en euskera y unificar el léxico. Por ello, el apoyo y el respaldo de Euskaltzaindia son y serán imprescindibles para este tipo de trabajos.

He aquí, pues, el *Diccionario jurídico-parlamentario básico*, puesto al servicio de toda la ciudadanía.

Bilbao, 24 de febrero de 2017

Ainhoa Aznarez Igarza,
Nafarroako Parlamentuko lehendakaria
Presidenta del Parlamento de Navarra

Eider Mendoza Larrañaga,
Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria
Presidenta de las Juntas Generales de Gipuzkoa



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



PARLAMENTO DE NAVARRA
NAFARROAKO PARLAMENTUA



Álavoako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

